

Perigolan

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2012ko ekaina / 7. zenbakia



40 urte,
40 belaunaldi



40 urte mantalak lotzen liburua **DOAN!**
Ikastolan ibili diren ikasleen familientzat
(idazkaritzan eskuragarri)

Pergolako oroitzapenak

Igaro dira hamahiru urte. Hamahiru urte pasatu dira gure bizitzako etapa esanguratsuenetariko bati atea itxi genionetik. Hamahiru urte dira bizitza berriari ekin geniola. Gaur, oroitzapenen kaxa astintzekotan naiz...

Mari Karmen datorkit gogora, gure lehendabiziko andereñoa; hogeita hamalau ume moxolo bere esanetara... Hammaika txotxongilo-saio ikusitakoak gara: amona Joxepa, Prontzio, Maritxu...; bizi ote dira? Eta zer esan, 5. mailan Uxoak ematen zizkigun klase magistralei buruz: "Nor-nork", "Nor-nori-nork", bat baino gehiagok ganbaran gordeta izango ditu taula sakratu haiek. Nork ez ditu gogoan "Zipristin" eta "Hizkuntza", "Bertsoz bertso" eta "Bertso tren"? Edo maisu Joanito, larruzko maleta marroia eskuan hartuta, eskolan sartzen zen momentua? Demetriorekin, berriz, makina bat "biribilketa" ikasi eta jotakoak gara; frantseko lehen hitzak ere berearekin ikasi genituen... Eta aurrefabrikatuak! Nola ez gara gogoratuko DBH egiteko ekarri zituzten kartzelatxo haietaz!... A ze garaiak!

Pozten naiz, benetan, duela hogeita sei urte, nire gurasoek Ikastolaren aldeko apustua egin izanagatik... Ikastolako familia osatzen duten guztiei zor diet balore indartsu, sakon eta apaletz jasotako heziketa. Mila esker!

Barru-barruan daramatzat, betiko, Ikastola garaiko oroitzapenak! PERGOLA izan da eta izan dadila oroitzapenen erakusleho, eta ORIOKO HERRI IKASTOLAK jarrai dezala herriko izaeraren erakusle izaten.

Maitane Mujika



Jon Manterola

Lehen promozioko ikaslea; egun, irakaslea

Ikastolak jadanik 40 urte bete ditu. Bertako gorabeheri buruz hitz egiteko, Jon Manterola irakaslearengana jo dugu; lehen promozioko ikaslea ere izan baitzen bera. Jonek honela erantzun die gure galdereei:

Ikastolak urte asko daramatza gure herrian; zuk, zenbat daramatzazu bertan?

Orioko ikastolan hiru urte ibili nintzen ikasle moduan, eta irakasle gisa hamabost. Gu lehenengo promozioko ikasleak izan ginen, eta garai hartan Haur Eskola bakarrik zegoenez hemen, hiru urte bakarrik egin genituen Orion. Gero Zarautzera joan ginen Lehen Hezkuntza egitera.

Ikasle eta irakasle, biak probatu dituzu. Zein duzu gustukoago?

(...) Irakasle moduan oso gustura nabil, asko gustatzen baitzait ikasleekiko harremana. Lanaz aparte, eskola ematea baino garrantzitsua goa eta ni gehiago asetzen nauena ikasleekiko harremana da, askotan gainezka egiten nauten arren.

Nola pasatu zinen ikasle izatetik irakasle izatera?

Nik Euskal Filologia ikasituen; ikasketa horiek gehienbat irakaskuntza mundura bideratua zeuden. Urte batzuk ordezkapenak egiten pasatu ondoren, 1996an, DBH sortu zen, eta 1997-98 ikasturtean, hemen hasi nintzen lanean. Horrela, oriotarra izanik, herriarekiko harreman zuzena izaten jarraitzen dut; hala izan ez balitz, noizbehinka amari bisita egitera etorriko nintzen. Egoera horrela izanda, oraindik oriotarra naizela sentitzen dut.

Txuletak erabili izango zenuen; gaur egun ikusten al duzu halakorik?

Egia da noizbait erabili izan dudala bat edo beste, eta harrapatua ere izan naizela; ikasleren bat ere harrapatu izan dut. Eta gaur egungo metodoei buruz zer esan...; nire ustez, metodo txarragoak erabiltzen dituzte, ez oso lan duak, behintzat. Hala ere, egia da gaur egungo teknologia berriekin errazagoa izan daitekeela txuletak egitea, baina horretarako gaude gu, ezta?

DBH-4ko ikasleak

40 urteak gogoratzen

Saloian hasi aurretik

Kontuan izan behar da baiezkoak bezala ezezkoak ere jaso zituztela bidean. Finantziario iturriak martxan jarri zirenean, sekulakoa izan zen herritarren inplikazioa; gurasoek, guraso ez zirenek eta irakasleek denetarik egin zuten: herriko jaietan taberna jarri, zozketak egin, jaialdiak antolatu, tonbola ipini...

Iñaki Agote

“Tonbolarako produktuak handik eta hemendik ekartzen genituen: Sigma josteko makina, Fagor etxetresnak, Alco hondartzarako eta kanpaldietarako aulkiak, herriko tailerretako altzariak, herritarrek egindako eskulanak...; denetarik geneukan.”

Felipe Arostegi

“Taberna jartzen genuen herritarrek utzitako lokaletan: etxean egindako tortillak, antxoak, atunak... Diru iturri garrantzitsua eta beharrezkoa zen guretzat.”

1971a, lehen eguna elizako saloian

Mila korapilo, sentimendu, ahalegin eta borroka haien ondoren iritsi zen egun handia. 1971ko urriaren lauan, banaka-banaka sartu ziren 24 hur haiek elizako saloira. Bi edo hiru urteko haurtxoak. Batzuek pozik eta besteak negarrez, baina han geratu behar! Orduan ez zegoen egokitzapenik eta halakorik!

Rosa Mari Agirre

“Hiru urte egin nituen irakasle gisa; lehena, saloian, eta, beste biak lkastola txikian. Hasierak beti izaten dira zailak eta gogorrak, baina oroitzapen onak gordetzen ditut. lkastola proiektu berria zen, dena den berria; adibidez, gu izan ginen Santa Ageda bezperan haurrekin kalera ateratzen lehenak; kaleko arropekin aterako ginen, noski. Eta Gabonetan ere uste dut atera ginela.”

Sagrario Olaetxea

“24 hur asko ziren, eta lehen eguna luzea egin zitzaidan. Eskola materialik ez zegoen, orriak erditik moztu, eta bi aldeak aprobetxatzen genituen. Jolasera irteteko lekurik ere ez, dena bertan egin behar: salto, korri, abestu... Lehenengo urtea oso gogorra izan zen, baina oso polita. Guraso haiena bai meritua! Gutaz fidatu ziren. Beren haurrak ia ezer ez zegoen gela batean uztera ausartu ziren. Horrek asko esaten du!”



Ikastola txikia, 1973a

Ikastolaren mugimendua indarra hartzen ari zen: ume gehiago, guraso gehiago, irakasle gehiago...; beraz, gela gehiago behar ziren. Saloian ez ziren denak kabitzen, eta beste lokal bat aurkitu zuten. Garai hartako Ikastolaren sortzaileek Pilarrenea esaten zioten, Pilar Marrotak utzitako eraikina izan zelako; Orion Ikastola txikia bezala ezagutzen duguna, hain zuzen. Frontoiko aldaparen goiko aldean zegoen Ikastola txikia; orain etxebizitzak eginda daude eraikin horretan. Ikastolako batzordeak ere, handik aurrera bertan egin zituen bilera eta asanbladak.

Goiko solairuan bi gela zeuden: bi urtekoak Mari Karmen Arrillagarekin, eta hiru urtekoak Maribel Eizagirrekin. Erdiko solairuan lau urtekoak Iñake Irastorzarekin, eta behekoan bost urteko gela jarri zuten Sagrario Olaetxearekin. Orduan elizako saloia erabiltzeari utzi zion Ikastolak, hamar bat urte bertan egon eta gero (1971-1981). Urte batean, bi urteko gela itxi ere egin behar izan zuten, galera ekonomikoak eragiten zituelako, baina segituan ireki zuten berriz.

Maribel Eizagirre

“Garai hartako oso oroitzapen gozoak gordetzen ditut. Irakasle eta gurasoen arteko harremana bikaina zen, elkartuta geunden oso. Elkarlana eta auzolana ziren Ikastolaren proiektuari haizea eman ziotenak. Edozer gauza egin behar bazen, beti bilatzen zen modu bat asmo hura aurrera ateratzeko. Adibidez, haurrek jolaserako lekua behar zutela eta, gogoan dut nola bota zuten hondarra ikastola txikiaren beheko solairuan. Gogoan ditut hango txirrista eta hondarretako jolasak!”



Santa Ageda kantuan lehenengo aldiz.

Mari Karmen Arrillaga

“Ni 1976an Ikastola txikian hasi nintzen bi urteko haurrekin. Eskolaurreko lau andereño geunden orduan saloian eta Ikastola txikian: Sagrario, Maribel, Iñake eta ni neu.”

Errastineko unibertsitatea, 1977a

Ikastola txikian zeudela, erabaki garrantzitsu gehiago hartu zituen orduko zuzendaritzak. Orioko haurrek ezin zuten Zarautzera joaten jarraitu ikasketak bertan amaitzeko; hargatik, OHO (EGB) ikasketak martxan jarri behar zituzten Orion. Horretarako ere lokalak, irakasleak eta dirua behar ziren. 1977an eman zuen Orioko Ikastolak OHOk lehen ikasturtea frontoi ondoko Errastineko lokaletan. Frontoiak eta Eusko Gudari kaleak bat egiten duten ertz horretan beste bi gela jarri zituzten. Umeek saloian eta Ikastola txikian Haur Hezkuntza egin ondoren, Errastineko lokaletan jarraituko zuten OHO ikasketak egiten.



Demetrio Esnaola

“Errastineko geletako irakasleen mahaiak Mamuten Joanitok eta nik erositako xafiaz eta egurrezko astoez egindakoak ziren. Haietxek izan ziren gure mahaiak. Materiala jasotzeko apaltxo batzuek. Berogailu elektrikoren bat gela berotzeko, baina nahiko lanak gela osoa berotzen. Gurasoek bi gelak dotore-dotore pintatzen zituzten ikasturtea hasi aurretik. Pedagogiari begiratu gero, ez ziren guztiz egokiak izango, ilunegiak zirelako etab., baina umeek argitzen zuten dena. Oso gustura egon nintzen han.”

Joanito Beristain

“24 ume ziren lehen OHO (EGB) nirekin egin zutenak. Sei urte zituzten, eta belaunaldi hura oso presente eta gogoan dut. Gainera, haietako bat lankidea dut orain Ikastolan. Beste asko gurasoak dira, eta horietako bateren baten seme-alabak ere izan ditut ikasle.”

Herriaren baimenarekin irekitako bi gela: Maisu-etxea, 1980a

Felipe Arostegi eta Iñaki Agote EAJko zinegotziak ziren Orioko udalean, eta 1948ko akta zaharretan datu eta informazio interesgarria aurkitu zuten. Maisu-etxearen eraikina Madrileko diruarekin egin omen zen, baina lurra herriarena zen, Oriorena. Beraz, galdera hauxe sortu zen: norena da maisu-etxea, orduan? Galdera plenora eraman zuten, eta Ikastolarentzat bertan bi gela egiteko eskaera ere bai. Halaxe lortu zuten 1980an bi gela horiek irekitzeko baimena, plenotik pasatu, eta herriak hala onartuta.



Orioko Herri Ikastola, 1983a

Gabon gau hartan Olentzeroren zakua handia izan zen. A ze oparia! Ametsak egia bihurtuko zituen eraikina lazo polit batean bilduta! Eraikinak bere horretan ez dira ezer, ordea. Bizitza eman behar zaie, bete egin behar dira. Hara eraman behar ziren traste guztiak herriko gainerako eraikinetan barreiatuta zeuden. Urte hartan elurra egin zuen mara-mara. Elurte latza. Eraikinez aldatzeko, lekualdatzea egiteko, Gabonetako oporrak erabili zituzten. Olentzerok ekarritakoari ezin zitzaion ezetzik esan.

Eskola kirola

Jose Migel Udabe

“Ikastolak ibai ondoko eraikina hartu zuenean hasi ginen pixkanaka kirola egiteko espazioak sortzen: gimnasioa atondu, marra zuriak margotu orain pergola dagoen kantxan, Lasartek egin zizkigun patiora egokitutako futboleko ateak jarri...”

Atzerriko hizkuntza: ingelesa. Monday, Tuesday, Wednesday...

Nekane Larrañaga

“Lehen eskola egunean euskaraz hitz egiten nien, eta handik aurrera ingelesez. Haurrek indioek bezala hitz egiten zuten, hasieran.”

Teknologia berriak eta garai berriak

Mentxu Oliden

“Laurogeiko hamarraldiaren amaieran sartu ziren lehen ordenagailuak Ikastolan.”

Demetrio Esnaola
“1983an pasatu ginen Zaraguetako ibai ertzeko eskoletara, orain Ikastola dagoen eraikinera, alegia. Orduan Zaraguetarena zen. Gabonetako oporrak bukatu, eta Errege egunaren hurrengo egunean egin genuen batetik bestera aldaketa. Gogoan dut, gainera, elurte galantarekin egokitu zela delako lekualdatzea.”



Eraikin berria, Ikastola berria 2009



Etorkizunaren atea zabalik



Manuel Lasarteren oroitzapen bilduma

DEMETRIO ESNAOLA:

“Errekreo garaian, askotan gerturitzen zen gugana. Manueltxori bokadiloa eman, eta gurekin hitz egiten geratzen zen. Bertso munduaz hizketan hasi, eta esan nion: ‘Ez al zenuke hemen zerbait egingo?’ Horrela hasi ginen lehen urratsak ematen, 1987. inguruan.”

Manuel Lasarterekin aritutako hainbat ikasleren oroitzapenak dira ondorengoak:

ANDONI SARASUA:

“Gu, haur talde bat, zaletasun berri baten aurrean lehen pausoak ematen; eta, horretarako, gidari zein..., eta Manuel Lasarte! Gaur egun, futboleko ikastarora doan haur taldeari Messi monitore egokitzea bezalakoa da hori.”

AITOR JAKA:

“Nik oroitzapen oso onak ditut. Oraindik ere gordeta dut hark emandako liburua.”

MANUEL LASARTE:

“Gogoan dut oraindik nola esaten zidan: ‘Manueltxo, orain ere hemen al zara? Ikastolatik piper eginagatik ez zara gero, etxerako lanak egitetik libratuko, e! Hona etortzen bazara, denbora aprobetxatzeko izan dadila, eta ez al

ferkeriarako!’ Berak beti esaten zidan zerbait ikasten hasi behar banuen, gustuko nuelako izan behar zuela, eta ez gustuko ez nuena ez egiteagatik. Zerbait biziki desiratzen baduzu, eta ahal duzun guztia egiten baduzu zure intentzio eta gogoekin, azkenean, lehenago edo beranduago, zure nahia beteko duzu. Arrazoi galanta zuen! Niri behintzat aholku horrek asko balio izan baitit.”

XABIER SUKIA:

“Gogoratzen naiz, Bikamiota aldean, ikastolatik irten, eta ardiak zaintzen nituen garaian, zenbat kontu esaten zenizkidan. Bazen han alpapa soro bat, ardiek ikaragarri maite zutena; eta mugarririk zaindu egin behar! Gogoratzen naiz ardiek muga pasatzen zuten aldiro, bastoia gora nola altxatzen zenien, eta horiek nola egiten zuten atzera! Behin ikastolan eskubaloiko entrenamendua nuela-eta, gogoan dut nola esan zenidan: ‘Segi lasai, nik zainduko dizkiat ardiak’. Besteen ardiak zaintzen dituen artzainak ardiak maite ditu!”

IBAI ESOAIN:

“Santo Tomas Lizeora joaten ginenean, ederra izaten zen. Pare bat kotxetan sartu, eta Donostiara. Inoiz gela batera joaten

ginen, eta saiotxo bat egiten genuen, Manuel bera gidari zela. Areto handi bat ere bazeukaten, eta gogoan dut behin iritsi, eta dena leporaino beteta zegoela gure zain. Harrera bikainak egiten zizkiguten, eta oihu eta animo haiek baretzeko, Manuelek berak pare bat bertso kantatzen zituen agur moduan. Harrigarria egiten zitzaigun hainbeste gaztetxoren artean egokitze zuten gaitasuna. Guk ondo edo gaizki kantatu, arratsaldean jai egiteaz gain egundoko meriendak ematen zizkigutela oroitzen naiz, eta gustura bueltatzen ginela berriz etxera!”

MIKEL ORBAÑANOS:

“Guk ez genekien oso ondo gizon hura nor zen. Behin Demetriok Manuel Lasarte gure bertso irakasle izatea luxu bat zela esan zigun, eta uste dut handik aurrera hasi ginela aurrean genuen gizon hura benetan baloratzen.”

IÑIGO ETXEZARRETA, KATXIÑA:

“Nik gizon hark gu bezalako ume batzuekin nolako enpeinua jartzen zuen dut gogoan. Askok eman zuen gugatik.”

JON LERTXUNDI:

“Pazientzia handia zuen gurekin; gustura joaten nintzen

bertsotara, eta oroitzapen onak ditut.”

URKO ESNAOLA:

“Bertsoak osatzerakoan, hitz batzuk izaten dira *komodin* gisa erabil daitezkeenak; batzuetan, silaba bat gehiago, eta, bestetan, bat gutxiagorekin, neurriak eskatzen duen eran. Adibidez, "ere" esango dugu batzuetan; bestetan, "re" edo "e", komeni zaigun moduan. Tartean "h" duten hitz batzuk ere ematen dute honetarako aukera; batzuetan, "zahar" esango dugu, eta, hurrena, "zar". Manueli "h"-ak ez gustatzen, ordea, eta laster zuzenduko zigun trikimailu hori erabiltzen baguenen.”

AINARA PEÑA:

“Abestea eta errimekin jolastea gogoko nuenez, izena eman nuen bertso eskolan. Saiok puntutan hasten genituen, eta a ze izerdiak! Bat-batekotasunarekin topo egiteak urduritasuna dantzan jarri zidan. Gainera, gizonen plaza hartan, denak ni baino zaharra goak ziren, eta oso txiki sentitu nintzen hasieran. Emozio horien guztien artean, Lasartek bere patxada transmititu, eta eroso asko sentiarazi zidan, niri gustatzen zitzaidan jolasean gozatzen irakatsiz.”

40 urte, 40 belaunaldi

Hemen ikastolak izan duen ikaslerik zaharrena, eta egun duen ikaslerik gazteena: Miren eta Andoni. Bien artean 40 urteko aldea dago. Bien artean 40 belaunaldi igaro dira. Etenik ez duen olatua da ikastola. Eteten ez den katea. Nik eman, zuk hartu, gero zuk ere emateko... 40 urteko transmisioa. 40 urte daramatza itsaso zaharrak olatu berriak sortzen.



Gero arte, lagunok!



Bi urteko gelan hasi zinetenetik, asko aldatu zarete, ondoko argazkiari begiratu besterik ez dago: emakume eta gizonak zarete! Hamalau urteko ibilbideak askorako eman du; fondoko lasterketa luzea izan da hau, eta helmugan zaudete dagoeneko. Urte asko igaro dituzue geurean, eta agurtzeko garaia iritsi da. Askok eman diguzuelako eta asko jasoko zenutelakoan altxa besoak, eta oihukatu ozen: iritsi gara, biba gu! Beste urrats bat zuen ibilbidean; orain iturri berrien bila zoazte, bazter berrien bila, baina ez ahaztu hemen jasotakoak, guk ere altxor moduan gordeko baititugu zuek utzitakoak. Eta etorkizuneko bidean ere horrela jarraitzea nahi dugu, jator-jator. Bazoazte, baina ez adiorik! Badakizue non izaten garen, eta etorri bisitan. Ez ikasle bezala, lagun bezala, zuen berri izan nahi dugu luzaroan ere. Malkorik ez, negarrik ez, pozez eta alaitasunez esan nahi dizuegu: bejondeizuela! Laster arte, lagunok!



kutxa